


Goi mailako Heziketa Zikloetara
edo Unibertsitatera prestatuta
iritsi nahi baduzu...



- Klaseak goizez
- Garraioa bailara osotik
- Teknologia berriak heziketan
- Kalitatezko eskaintza

Oiartzo

BATXILERGO IKASTOLA

- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa



ETORKIZUNARI EUSKARAZ ERANTZUNEZ

maiatzean aurrematrikula irekia!

tel: 943 523804 / 520397 e-mail: oiartzo@ikastola.net

Elkarrizketa: bizitza erdian futbolera jokatzen

branka

Pasaiaiko herri-aldizkaria

Jaizkibel draga, zaharberritze bidean



2002ko apirila

26 zenb.

Multi
ESKAITZAK
MULTIOPTICAS

Ba al dakizu zer dagoen
begirada eder baten atzean?...
Eta aurrean?

BONARDI
AIREKO
ARMAZOI
BERRIAK

49
8.153 € pta.



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRENTERIA
Tel. 943 51 78 11

MULTIOPTICAS

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garzia Urbina
Maketazioa
Urko Etxebeste
Publizitatea
Eñaut Gantxegi TEL.: 689 78 33 17

Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapiain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.

Argitartzaileak:
Arnasa Euskara Elkartea
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua: SS-42/2000
ISSN: 1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

2002KO APIRILA / 26 ZENB.

br-26

2

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behelaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaia herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaia Udala



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua

ELI SIFU

OBREN ONDORIOZ:
ESKALANTEGI 48-AN
GAUDE, PROBISIONALKI.

BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA
MAITZAREN LEHENA 3. 30110 PASAI ANTZO. GIPUZKOA.
943 520888.

Loradenda MAIALEN

Ezkontzetarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua

Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTZO

IPARRA taberna

M I E H

Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTZO

laburrean

>5. EZ ZAITEZ MOZTU

>6-12. BARRUTIZ BARRUTI
>13.ESKOLATIK KALERA JAIA

>14. ELKARRIZKETA

Bizitza erdia futbolera jolasten

>17. SAKONEAN

Bidezko merkataritza

>18. KALE-INKESTA

Victor Hugo idazlearen jaiotzaren 200. urteurrena

>20. ERREPOR-TAJEA

Jaizkibel draga

>24. KULTUR AGENDA

>25. LEHIAKETA

>26. KRITIKAK

>27. HORRELA-KOAK GINEN, IRAGANARI BEGIRADA



br-26

3

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

t

telefono interesgarriak

UDAL ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuak:
943391187

Kultura, euskara eta gazteria:
943400108

Idazkaritza:
943344140

Dirubilketa:
943522150/4

Kontuhartzailletza:
943344157

Diruzaintza:
943344153

Hirigintza:
943344224

Udaltzaingoa:
943400000

Obrak eta zerbitzuak:
943393693

Antxoko Udal Liburutegia:
943515737

Trintxerpeko Udal Liburutegia:
943401053

San Pedroko Udal Liburutegia:
943399348

Pasaia Musikal Udal Fundazioa:
943396055

LARRIALDIAK

DYA:
943521557

Gurutze Gorria:
943511605

BAILARAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK

Lau haizetera:
943341048

Orratz!
943344626

Branka:
943341045

Oarso Telebista:
943493818/19

Oiartzun Irratia:
943493711

@

interneteko helbideak

PASAIA

Branka herri-aldizkaria:
Branka@euskalnet.net

Alkartasuna Euskal Dantza Taldea:
Alkartasuna_edt.pasaia@euskalheria.znn.com

www.gipuzkoa.net/pasaia/
www.paisvasco.com/pasaia/

EUSKARA

Euskaltzaindia:
www.euskaltzaindia.net

Elhuyar:
www.elhuyar.com

UZEI:
www.uzei.com

IVAP/HAAE:
www.ivap.com

UPV/EHU
www.ehu.es

Udako EuskalUnibertsitatea
www.ueu.org

Euskal Herrian Euskaraz
http://www.geocities.com/capitol-Hill/7012/

Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarteak:
www.eizie.org

KOMUNIKABIDEAK

Argia:
www.argia.com

Euskaldunon Egunkaria:
www.egunkaria.com

EITB:
www.eitb.com

BILATZAILEAK

www.jalgi.com
www.aurki.com
www.kaixo.com

INSTITUZIOAK

Eusko Jaurlaritza
http://euskadi.net
www.ej-gv.es

+

Goardiako farmaziak

Maiatzaren 3an: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781

Maiatzaren 4an: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545

Maiatzaren 5ean: M^oTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349


Maiatzaren 12an: M^oLourdes Martinez Lagos. San Juan kalea 22. Donibane. Tel.: 943514645

Maiatzaren 16an: Egurrola Farmazia. San Pedro.

Maiatzaren 20an: M^oTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349

Maiatzaren 23an: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545


Maiatzaren 29an: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781



besteak

JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK

Apirilan, 4 pasaitar jaio dira 2 pertsona hil dira, eta 4 ezkontza ospatu dira.



ez zaituz moztu

Utz gaitzatela bakean!

Duela egun batzuk, gaixotasun txiki bat dela eta, sendegilearenganako bidea hartu nuen, Ergobian dudana lantokitik Donostiara. Horretarako, Hernani-Donostia bidea betetzen duen autobusa hartu nuen. Autobusa Anoetako estadioaren parean zegoela, sekulako balaztada eman zuela ohartu nintzen, baina nik ez nion beste munduko garrantzirik eman, eta aurreko ateari bizkarra ematen zion aulkian geldirik jarraitu nuen aurikulareekin musika entzuten. Bapatean, norbaitek atzetik bultzatu ninduen, nik burua biratu, eta izozturik gelditu nintzen goardia zibil baten aurpegia ikusi nuenean.

Soinean nuen motxilan nuen guztia ateratzeko esan ondoren, bultzadaka autobusetik atera ninduten, etengabe, zeramatzaten armekin neure gorputza apuntatzen zutelarik. Nik zer gertatzen zen galdetu ostean, beste bultzakada batez paretaren kontra jarri ninduten, musika entzuteko neraman walkmana hartu, zein musika mota zen entzun, eta "esto es lo que escuchas vasquito de mierda, ahora te vas a enterar" esan ondoren walkmana lurrera bota zuten, hau zenbait zatitan hautsiz.

Nongoa nintzen, nondik nentorren, nora nin doan... eta beste zenbait galdera egin ondoren, karneta eskatu zidaten. Nik, sendagilearengana joateko ordua pasa zela ikusirik, urduritu eta etxera nindoala esan nien. Hau esan eta segituan, etxera joaten lagunduko nindutela esan zidaten, eta horretarako topoko geltokira joan, eta topoa iritsi bezain laster bagoi erdia hustu eta ni txoko batetan jarri ninduten, bagoiaren beste aldean zegoen jendea goardia zibil batek etengabe metrailetarekin apuntatzen zuelarik. Bidaian zehar, galdera gehiago egin zizkidaten, baita zenbait zaplasteko eman ere. Antxora iritsi, eta 'hasta pronto y que duermas bien' esan ondoren, etxera joaten utzi zidaten. Ondoren jakin izan dudanez, goardia zibilaren portaera hau arrunta da, egunero omen bait dabilta gorputz polizial honetako kideak bai topoan, trenean edo autobusetan, garraio publikotan orokorrean, niri egin zidaten antzeko gauzak eginez. Arduradunak? neure ustez batetik pertsona hauek garraiobideetan nahi duten bezala ibiltzea uzten dieten garraiobide horietako arduradunak, eta bestetik gu geu, maite ez ditugun gorputz polizial hauek ez ditugulako salatzen eta ez diegulako zuzenean 'utz gaitzazue bakean!' esaten. Noski, gorputz polizial guztiek, norbaiten aginduak betetzen dituzte beti.

Goio Ekai

donibane



San Juango Kirol-taldeen eta Pasaiaiko Udal Kirol Patronatuaren arteko hika-mikak

Gazteri eta kirol teknikariak San Juango kirol-elkarteen artean galdetegi bat pasatzea proposatu zuen. Inkesta honetatik lortutako informazioarekin, kirolaren diagnostiko bat egitea eta oinarri honetatik kirola suspertzeko lan-ildoak diseinatzea lortu nahiz zen.

Inkesta hau betetzeko eta San Juango kirolaren eta kirol-elkarteen arazo eta premiak eztaba-datzeko kirol-elkarte gehienak

elkartu ziren. Hala nola, polikiroldegiko ordezkariak, eskubaloi-taldea, Usoa ehiztari-taldea, futbol-taldea, areto-futboleko taldea, Itsas-Mendi, Koxtape piraguisimo eta txirrindulariak.

Bilera honetatik bi ondorio nagusi atera ziren. Batetik, polikiroldegia bultzatu egin behar dela, eta bestetik, kirol-elkarte txikiak elkartzeko beharra hainbat helburu eta premiak lortzeko.

Bilera honetan San Juango kirolaren egoera kaxkarra adierazi eta Udalak ez zituela bere suspertze-funtzioak behar adina betetzen ikusi zuten.

Horren aurrean, jarduerak bat antolatzea erabaki zen. Bi helburu beteko lituzkeen jarduerak: alde batetik, herriri zerbait eskaintzea, eta bestetik, elkarrekin lan egitea.

Proposamena Aste Santuko lau egunetan hainbat ekintza antolatzea zen. Ekintza irekiak, gazte eta haurrentzat: txirringa,

mendiko eta uretako kirolak, polikiroldegian gaztelu haizatuak... egitea aurreikusten zen. Horretarako, aurrekontu bat aurkeztu zen Udalean, eta, nonbait, epez kanpo zegoela eta, dirurik egongo ote zen ez zekitela erantzun zuten; eta ondorioz, ekintza aurrera atera ahal izateko, agian herriko taldeek beraien aurrekontuetan hartu beharko zutelako kontuan; eta aurrekontuetan sartuz gero, hurrengo urtekoetik kenduko zela. Egoera honen aurrean, orduan, kirol-taldeek egitasmoa bertan behera uztea erabaki zuten.

Bukatzeko, kirol-elkarte guztiek, udalaren kirol-kudeaketa kaxkarra eta dirulaguntza murrizkak azpimarratzen dituzte. Eta nolabait, kirol-elkarte guztiak elkartzearen bitartez, egoera honi aurre egiteko, 2003 urteari begira egitasmo bat diseinatu nahi dute, egin nahi diren

jarduerak guztiak islatuko dituen egitasmoa. Eta hori guztia denborarekin egin, hurrengo urtean, jarduerak guzti hauek Kirol Patronatuaren aurrekontu-sail bat izan dezaten.

Ezker Abertzaleari erasoak salatzen itxialdia

Apirilak 19-21 bitartean (aste bukaeran) San Juango udaletxean, ezker abertzaleak antolatutako itxialdia egin da. Itxialdi honen bitartez ezker abertzalea jasaten ari den erasoak salatu nahi izan dituzte. Aste bukaeran zehar hainbat ekintza antolatu dituzte. Horretaz gain, itxialdiko egunetako batean, San Juanen guardia zibila egon izana salatu nahi izan dute.

Motorraren gaiarekin bukatzeko

Brankako azken zenbakietan motorraren gaiak hitz egin dugu eta azkeneko zenbakian aurreratu genuen bezala Pasaiaiko badian dabilzan bi motora zerbitzuak lehiaketara atera dituzte. Bertara, lehiaketara, bi enpresa aurkeztu dira baina biak Donibane-San Pedro zerbitzura. Kaiako arduradunekin harremanetan jarri ondoren zerbi-



tzua nori eman dioten esan ez digutenez gaia hurrengo zenbakian argitzen saiatuko gara. Honez gain beste arazo bat dago, zer egin Antxo-Donibane zerbitzuarekin. Arazo hau dela eta, Pasaiaiko udaletxearekin

hitz egin dugu eta hurrengo egunetan arazo hau konpontzeko bilera bat egingo dela esan digute.

Ea arazoa konpontzen den eta pasaitarrok merezi dugun zerbitzua lortzen dugun.



komikia

Aitor Puy



san pedro

Aspenasen zenbat dauden...

Hain aldamenen eta hain beste puntan dauden San Pedro eta San Juanen arteko era guztietako konezioek zer esan franko eman izan dute historian zehar, batez ere, inteligentzia bi edo gehiago eztabaida mamitsuan hasten direnean. Hauetako azkena, pasa den apirile-

lia hau Pasaiako Portu Agintaritzara hurbildu da datu zehatz, informatiko, eta behin-behinekoren bila.

Hara:

>Torrea-Humilladera: 122, 87 metro.

>Enbarkaderotik-ra:

112, 45 metro.

>Kalparra-Bonantza edo Anmistia arkuak:

107 metro.

>Kalparrako pantalana-Bonantza Anmistia arkuak:

93 metro.

Hainbeste metro artean, egon da

naren kobazuloan piztuta utzi.

Zubi zintzilikatua edo ur azpiko tunela eraiki bitartean, ezetz asmatu eraikin hauen inaugurazioan Operación Triunfo zeinek abestuko duen "Corazón portuario" doinua.

Sanpedrotarra futbol-taldea

Albiste hau irakurtzen duzueneko, jakingo dugu non dagoen Sanpedrotarra erregionaleko taldea.



an gertatu zen herriko Kurdinene Elkartean, bertan ondo bazkaldu eta edandako talde bat San Pedroko Torretik San Juango Humilladera zenbat metro ote zeuden kalkulatzen hasi zenean. 50 metro..., 60..., ehundik gora bai..., kopa bat, kopa bi...San Pedro-San Juan distantzia motzena..., enbarkadera..., eta abar, eta abar...

Eztabaidak hartutako itxura aldrebesagatik eta neurri guzti hauen kontua argitze arren, korrespontsa-

kainaberaz hemendik haruntza amua, beruna eta txixxarea igorri duenik, baita Vergararen lapan festa joan-etorri hezeak burututako ausartarik eta, nola ez, -erremolkadoria!- badia erdian esanez, leku biak arnas estuka eta bainujantzian zeharkatu duen igerilaririk.

Ez litzateke ideia txarra izango herriko festetan igeriketa-lasterketa olinpikoa antolatzea: Torretik Humilladera, han kandela piztu, bueltan ekarri, eta torreko amabiriji-

Baina entrenatzailearekin bildu ginenean, urduritasuna nabaria zen. Lehenengo erregional mailara sailkapeneko lehenengo bi taldeak igotzen dira, eta bigarrenak egon arren, lau punturen inguruan mugitzen dira sailkapenaren buruan dauden lau taldeak.

Igoera-fase honetan hamar partidu jokatu dituzte, eta gol gutxien jaso dituen taldea da (aurka 8 gol, alde 25 gol). Emaizta hauek, beraiek diotenez, taldean dagoen giro onaren

ondorio dira. Bestalde, kirol-prestaketa serioa dutela nabari da, entrenamenduak-eta planteatzeko orduan.

Astean hirutan entrenatzen dute. Astelehenetan, entrenamendu fisikoa egiten dute, arlo honetan Xabi Sanzek laguntzen duelarik. Astearte eta asteazkenetan teknika eta taktika lantzen dute, Egoitz Etxarri eta Iñigo Muguruzarekin. Eta atezainarekin bereziki lan egiten duena Iñigo Otaño da.

Duela zazpi urte, lehenengo mailara igo ziren, bertan hiru urte emanek. Garai hartako jokalaririk bat oraindik jokatzen ari da, Harkaitz Goikoe-txea, atezaina, hain zuzen ere. Orduan Branka oraindik ez zegoen katean, baina orain albiste sakonagoak eskaini ahal izatea espero dugu.

Zorabioa 1X2 inguruan

Batzuentzat 17 cm tamaina ona da, beste batzuentzat ez ordea.

Horrelako zeozer gertatzen da Kope eta 1X2 zonaldean Udalak eraiki



duen eskailera berriaren kasuan. Herritar asko eta asko kexu da eskailera hauek hartu duten izartegirako joera bertikalaz. Eta pasa den apirilaren 19an, esate baterako, Salbioko emakume gazte, sasoi eta lirain bat eskaileretatik behera erori zen. Espazio berri honen inguruan jendeari entzundakoaren arabera, mingain gehienek eskailerak trakettsak, altuegiak eta nahiko estuak omen direla esaten dute. Beste batzuk harantzago doaz ilegalak ez ote diren aipatzerakoan, eta batzuen batzuk sinadura-bilketa proposa-

tzen dute eskailerak aldatzeko modu egoki bezala.

Udaletxeko iturriek berriz, zera diote: eskailera maila bakoitzak 17 cm dituela, eta inklinazio fisiko hau erabat ados datorrela kontu haue-tan legeak eskatzen duenarekin.

Gai juridikoak tartean, badago ezinduentzat eta karroentzat arrapalaren bat zergatik jarri ez ote den galdetzen duenik ere.

Hala edo nola, gutxienez kirola egiteko eta mingaina eragiteko aukera luzatuko digu eskailera honek.

Kioskozulua



jar ezazu
zure
iragarkia
Brankan

HAUXE BAI DELA
MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN
DAUKA

San Pedroko Bodegoia

MUGURUZA ARDOAK



ARDOEN
ETA
RIBEIROEN
SALMENTA
hamaiketakoak
eta
meriendak
Urte Berri on!!

Torreatze kalea 8, behe 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

antxo

Izarretatik hurbil

Urko Otegi. Adina: 20 urte. Altuera: 203cm. Oin-neurria: 49. Duela bi urte, Urko Askatuak taldean goi-mailako saskibaloian hasi zenean, horri hauetan bertan elkarrizketa egin genion orduan zituen iritzien berri jakiteko. Bi urteren buruan, bere bizitza pertsonalak eta profesionalak aldaketa handia jasan dute, Antxotik Valladolidera joan baita jokatzera eta bizitzera. Hauek dira Urkok esandakoak.

Nola aldatu da zure bizitza azken bi urte hauetan?

Nire bizitza onerako aldatu da. Profesionalki, adibidez, Donostian ez nuen jokatzeko aukera gehiegirik, hemen berriz asko jokatzen dut, Forum Valladolidekin egunero entrenatzen badut ere, LEB ligan dagoen Palentziarekin jokatzen baitut astebururo. Gainera, fisikoki, teknikoki eta mentalki ere asko hobetu dut, hemen prestakuntza gogorragoa baita. Honek ekarri du nire izena ezagunagoa izatea estatu mailan, eta horregatik zenbait ekipo datorren urterako nire atzetik dabilta, ni fitxatu nahian.

Gainera, nire bizitza pertsonalari dagokionez ere asko ikasi dut Valladoliden; plantxatzen, janaria egiten, etxea garbitzen, eta Antxon gurasoekin bizi nintzenean egiten ez nituen hainbat gauza ikasi dut.

Zein alde on eta txar ikusten dizkiozu kanpoan bizitzen egoteari?

Noski, betidanik ohituta zauden gauzak ez ditut Valladoliden egiten. Nik gustuko dut lagunekin parrandaxoa egitea, Antxotik ibiltzea, betiko tokian kafetxoa hartzea, nire guraso eta anaiarekin egotea, igandetan nire amonaren baserrira joatea hau bisitatzera... Han egunero bitan dauzkat entrenamenduak, eta urtean lauzpabost alditan itzultzen naiz Antxo aldera. Alde



onak ere badaude, gutxi gorabehera aurreko galderaren erantzunean agertu ditudanak.

Nolakoa da zure egun bat Valladoliden?

Astean zehar entrenamenduak egiten ditugu, eta asteburuan partidak dauzkagu. Aste egun batean hamarretan esnatzen naiz, gosalduta eta pabilioira noa entrenamendua hasi baino ordu erdi bat lehenago, hanka eta txorkatilak benda diezazkizaten, entrenamendutan lesio asko gertatzen baita. Entrenamendua bukatu eta gero, 12:30etan-edo, ekipoko ki-deekin pote bat hartzea noa, etxera joan, bazkaldu, siesta txiki bat eta berriz ere entrenamendura itzultzen naiz. Hau amaitu eta gero, ekipokoekin zerbait hartu, zinemara joan edo horrelako zerbait, etxera itzuli, afaldu eta hurrengo egunera arte.

mendua bukatu eta gero, 12:30etan-edo, ekipoko ki-deekin pote bat hartzea noa, etxera joan, bazkaldu, siesta txiki bat eta berriz ere entrenamendura itzultzen naiz. Hau amaitu eta gero, ekipokoekin zerbait hartu, zinemara joan edo horrelako zerbait, etxera itzuli, afaldu eta hurrengo egunera arte.

Nolabait zaintzen al duzu zeure gorputza?

Nik bizitza normala egiten dut, eta janari aldetik ez dut dieta berezirik jarraitzen. Parrandak, erretzea eta horrelakoak noski debekatua dugu, baina bestela bizitza normala egiten dut.

Zein ezaugarri daukazu jokalaria bezala?

Nire ezaugarri nagusia neure altuerarako oso az-

karra izatea da. Normalean, nire altuerako jokalariek ez dira oso azkarrak, eta nik kalitate horri esker abantaila handia izaten dut. Psikologikoki ere oso indartsua naiz eta hasieratik bukaerara oso kontzentratua egoten naiz.

Hainbeste tokitan eta hainbeste jokalarirekin jokatuta eta gero, zeinek harritu zaitu gehien?

Ba gehien harritu nauena nire taldeko amerikar bat da, John Williams izenekoa. Tipiak 2.06 m-ko altuera du, 157 kiloko pisua eta aldi berean oso azkarra da. Harritzekoa da tipiak duen indarra eta azkartasuna!

Arazorik al duzu arroparekin, ateen markoekin eta?

Orain ez. Txikitik arazo batzuk izan nituen, urtebete-

an 9 zentimetro luzatu bainintzen, eta zapatilekin, arroparekin eta autobusetako eserleku arteko tartarekin arazoak izan nituen. Azkenaldi honetan jendearen altueraren batez bestekoa handitu denez, arazorik ez dut.

Eta etorkizunean zer?

Batetik, gustatuko litzaidake instituzioek edo dagokien kirol-estamentuek saskibaloia bezalako kirol bat bultzatzea, bigarren mailako kirol bat dela baitirudi, beti futbolaren itzalpean.

Pertsonalki, hurrengo urterako ekipoa bilatu behar dut, eta horretarako mahai gainean eskaintza asko dauzkat, Donostiako ekipoa hauen artean dagoelarik. Niretzat polita izango litzateke etxean jolastea, baina bueno, ikusi beharko...

Kutxako autobusari eraso

Apirilaren 27an, larunbata, zenbait kaputxadunek su eman zioten Kutxak larunbatero gure barrutiko Gure Zumardian jartzen zuen autobusari. Gertakizun hau, Ertzaintzak dionaren arabera, arratsaldeko laurak inguruan gertatu zen, zenbait kaputxadunek autobusean zeuden herritar nahiz bertako langileei ateratzeko esan eta ondoren honi su eman ziotenean. Ondorioz, ke hodei handi bat sortu zen eta inguruan zeuden etxetara joan zen, baina zorionez, ez zen zauriturik izan.

Autobus honek, Kutxak esandakoaren arabera, 600.000 eurotako balioa zuen, eta estatuan zegoen modelorik berrienetakoa da. Bertan, hainbat ordenagailu eta bestelako tresna informatiko zeuden jarriak, Gipuzkoako herri-askotan haur, gazte eta helduei Internet ikastaroak emateko helburuarekin. Ezbehar pertsonalik ez gertatu arren, gertakizun honek bizilagunen arduratu sortu zuen.

Gazte Asanbladaren Pilota-Txapelketa

Dagoneko martxan dugu Pasai Antxoko Gazte Asanbladak (PAGA) urtero antolatzen duen eskuz binakako pilota-txapelketa, aurten III. edizioa betetzen duena. Aurtengoan ere bikote andanak eman du izena, Antxon dagoen pilotazaletasunaren lekuko. PAGAko ki-deek esan digutenaren arabera, aurten 30 bat bikotek eman dute izena, hauek heldu eta hurren kategoriatan banatuak izan direlarik. Hilduei dagokienez, partidak, ostiral, larunbat eta igandeetan jokatuko dira, lehenik ligaxka erara, eta ondoren multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak hurrengo fasera joateko aukera izango dute (4 multzo daude). Finalak uztailaren 4an jokatuko dira, Sanferminetako txupinazioa eta gero. Antxotarra izango al da Retegi berria?

San Ferminak

Sanferminetarako bi hilabete falta

den arren, jai-batzordeak dagoneko bilera dezente egin ditu hauek prestatzeko helburuarekin. Aurten Sanferminak uztailaren 4an hasiko dira (osteguna) eta 8an (astelehena) izango dute 'Pobre de mi'.

Oraindik egitaraua osatzen doan arren, aurtengoan bi berrikuntza nagusi izango ditugu (momentuz): batetik 'karruselek', 'tonbolek' eta bestelakoek kokapen berria izango dute, bota berri den Luzuriagako orubean izango baititugu aurtengoan, Kupeldegi kalearekin parez pare. Beste berrikuntza nagusia uztailaren 6rako antolatua dagoen koadrilen eguna da. PAGAtik (Pasai Antxoko Gazte Asanblada) sortutako ekimena da hau, eta helburu garbia du: Antxon dauden koadrilek urteetan zehar galtzen joan diren protagonismoa berreskuratzea. Horretarako, parte hartuko duten koadrilen arteko bilkurak egiten ari dira egun honek behar duen garrantzia izan dezan, egitarau umoretsu eta luze bat antolatzeke asmotan.

Bestelakoan, aurtengoan ere, noski, danborradak, entzierroak, dantzaldiak, buruhandiak eta gure barrutiko jaietan hain atseginak zaizkigun beste hainbat eta hainbat ekimen aurrera eramango dira. Jari zapi gorriak garbitzen!

Muebles
Altzariak

RUIZTEGUI, s.a.

MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA

Nafarroa hiribidea, 15
Tfnok.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTZO

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA

EGUNEKO
MENUAK

ETA
KARTA
ZERBITZUA

Eskalantegi, 118
Tfn: 943 520 770

Molinero Auzoa
PASAI ANTZO

Mio
Taberna

1934

Gure Zumardia, 27-20110-Pasata (Gipuzkoa)

URTZINTXA
BULL

URTZINTXA BULL, S.A.

Gipuzkoako English Mark
Darts operadoreak

Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Gohierri

C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTZO

**MIMOS
TABERNA**

tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

trintxerpe

Argazki lehiaketa



Apirilaren laugarren astean zehar Trintxer Kulturak antolatutako 'Pasaia Herriko VI. Argazki lehiaketa'ra aurkeztutako lanak egon ziren ikusgai Trintxerpeko alkateordetzaren areto nagusian. Ehundik gora izan dira Trintxer Kultureko lagunek jasotako argazkiak, 35 txuri-beltzeko atalean, 30 koloretan eta 42 diapositiba atalean. Antolatzaileak pozik azaldu dira ja-

sotako erantzunarekin, izan ere, leku askotatik iritsi baitira argazkiak: Mungia, Trapaga, Urruña, Zaragoza edota Valenciatik.

Honako hauek izan dira irabazleak.

Txuri-beltzeko atalean lehenengo saria Michel Epiphane Ahatzetarrak irabazi du 'Le retour du marche' izeneko argazkiari esker. Bigarren saria Donostiara joan da, Joaquin Garcia Lizeagak egindako 'Guias Marinas' izeneko argazkiarengatik.

Koloreko atalean, bi irabazleak Donostiarrak izan dira: Luis Larrañetaren 'Erase una vez' izenburuko argazkiari esker eta Alfonso Larumneren 'Despertar' izenburukoari esker. Azkenik, diapositiba atalean, lehenengo saria Legazpiko argazkilari batentzat izan da, Josu Altzelarentzat 'Gabriel II' izeneko lanarengatik. Bigarren saria Miguel Angel Ce-

berio oreretarrak eskuratu du 'Pescando izenburua daraman lanarengatik.


Lehenengo saria irabazi dutenek 240 euro eta trofeo bana eskuratu dute. Bigarren saria irabazi dutenek, ordea, 120 euro eta diploma bana.

Margolanak

Beste alde, argazki lehiaketara aurkeztu diren lanen erakusketa ez da Trintxerrekoek apirilean antolatu duten bakarra. Izan ere, apirilaren 15etik 21era bitarte margolan lehiaketara aurkeztutako margolanak izan baitziren ikusgai. Guztira 64 lan iritsi ziren Trintxer Kultureko egoitzara. Gaia honako hauek izan ziren: 'Urtaroak' eta lehenengo saria Oreretako Agustin Pontestak eskuratu zuen. Bigarren saria, Iruñara joan zen, Manuel Bermejoren eskutara. Araceli Arrizabalagak irabazi zuen 'Pasaia' izeneko sari berezia.

Maiatzaren 11n, Eskolatik Kalera VI. jaia Antxon

Maiatzeko zitari jarraikiz, aurtengoan ere Eskolatik Kalera jaia ospatuko da gure herrian, 2002. urte honetan Pasaia Antxo izango delarik jaiaren kokaleku. Ekitaldi guztiak Antxoko Gure Zumardian nahiz Frontoian izango dira. Giroa ziurtatua dago, zeu bakarrik falta zara.



Ezkerraldean, aurtengo jaia iragartzen duen txartelaren irudia. Azpikaldeko argazkian berriz, Edurne Urkiola eta Xabier Garagarza Pasaia Antxoko Alkateordetzan egin zen jaiaren aurkezpenaren irudian. Hauxe da jaiaren egitaraua:

- >11:30tan: txistulari eta albokariaren diana
- >12:00-13:30: Karmengo Ama eta Pasaia-Lezo Lizeoaren tarte (abestiak, dantzak...)
- >13:30: trikitalarien kalejira
- >13:30: haurren bazkaria
- >14:00: helduen bazkaria
- >16:00-18:30: haur eta gaztetxoaren jokoak
- >16:30: dultzainak
- >17:00-19:00: Pasaia IV. graffiti lehiaketa
- >18:30: txokolate jana
- >18:30-20:00: kirol gunea (rokodromoa, tirolina, txirrindak...)
- >19:15: ipuin, marrazki eta graffiti lehiaketako sari banaketa
- >19:30: musika ekitaldia



Oarso 13, behea esk. Pasaia Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB: <http://www.iturgaiz.com>
E-mail: majestik@iturgaiz.com

Pasaia Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.



betiko
musika



Bizitza erdia futbolean jokatzeko

Itziar Aldezabal eta Naiara Mayo, 26 urteko bi futbolari pasaitar. Bata antxotarra, bestea sanpedrotarra. Txikitatik bakoitzari bere herrian piztu zitzaion futbolaren grina, eta ikastolako lagunak izanik, Sanpedrotarra futbol-taldean hasi ziren 13 urterekin.

Hainbat bizipen elkarrekin izan eta gero, bakoitzak bere bidean ari da orain. Baina biek futbol-munduan jarraitzen dute, beren taldeetako kapitainak direlarik. Batak besteari buruz hitz egiteko moduan, nabari da elkarrekin emandako urte hauetan guztietan, bi futbolari onez gain, bi lagun on ere sortu direla.

Futbol-talde batean jokatzeko batera hasi zintez. Nondik gogoaz?

I.A.: Ni txikitatik plazan beti mutilekin jokatzeko egoten nintzen. Gainera, opari onena baloi bat izaten zen. Ikastolan ere biak atsedendietan mutilekin jolasten genuen futbolean.

N.M.: Nire auzoan, gainera, koadrilan denak mutilak iziren, eta beraiek futbolean jokatzeko zutenen, nik beraiekin jokatzeko nuen.

Sanpedrotarran denbora luzez taldeko gazteenek izan zintez. Zer moduz?

I.A.: Oso ondo. Gure lehenengo taldea zen, bidaiak eta egiten genituen, eta gainera, 13 urterekin oho-

rezko mailan geunden. Gainontzeko neskekiko adin desberdintasun handia egon arren (gazteenak 18 urte zituen), oso gustura ibiltzen ginen.

N.M.: Urte horietan asko ikasi genuen. Egia esan, ez genuen gehiegi jokatzeko, baina giroarengatik oso gustura geunden. 1991n jende gazteagoarekin Sanpedrotarra B sortu zen. Talde honekin euskal ligan jokatzeko genuen, eta guk beste taldearekin tartekatzen genuen.

Duela gutxi arte zuen bidea batera joan da. Zertan ari zarete orain?

N.M.: Hamar urtez (88-98) talde berdinetan jokatzeko aritu gara. Lehenengo Sanpedrotarran eta az-



|| Naiara eta Ixiar, 1990 urtean.



|| Naiara eta Ixiar, gaur egun.



keneko hiru urteetan Tolosako Bentaldea taldean. Honen sorrera Tolosako lagun batzuen ideia izan zen, babeslea bilatzeaz arduratu ziren, eta azkenean Bentaldea sagardotegiak babestu gintuen.

Euskal ligan 3 urtez jokatu eta hiruetan irabazi genuen. Espainiako txapelketara bitan joan ginen, batean txapelkun, bestean txapelkunorde geratuz. Talde honekin, gainera, DonostiCup eta Superbowl jokatu genuen. Bartzelonako txapelketa honetan bigarren geratu ginen, baina maila handiko taldeen aurka jokatu genuen.

I.A.: 1998an, Bentaldea desagertu zenean, bertako jokalariek Hernaniko Egokirekin bildu ginen eta Tolosan jokatzeko hasi ginen, Hegoalde izeneko taldea sortuz. Orain bertan nago, eta Espainia mailan jokatzeko dugu.

“KOMUNIKABIDEETAN, ESATERAKO, GIZONEZKOEN ARETO-FUTBOLARI ESKAINTZEN ZAION TARTEA ETA GURI ESKAINTZEN ZAIGUNA OSO DESBERDINA DA. BABESLEAK BILATZEKO ORDUAN ERE GURI ZAILAGOA EGITEN ZAIGU, DAGOEN DIRU URRIA GIZONENTZAT DOALAKO. ETA HORRELA GERTATZEN DA ARLO GEHIENETAN.”

N.M.: Ikasle nintzen artean, unibertsitateko taldean sartu nintzen, eta oraindik bertan jarraitzen dut. Unibertsitate mailako liga nazionalen gaudu.

Biek jokatu duzue Euskal Selekzioan. Zer nolako esperientzia izan da?

Hiru urtetan jokatu dugu, Gipuzkoako eta Euskadiko Selekzioan, eta aurten ere deitu gaituzte. Areto-futboleko selekzioa ez da oso ezaguna, arrazoi bakar batengatik; emakumezkoen areto-futbolari orokorrean ez diotelako estaldura handirik ematen. Horregatik ere ez dago polemikarik selek-

zioarekin. Izan ere, instituzionalki mugarik ez jarri arren, kanpora jokatzena zoazenean nabari da hone-lako errezelo bat.

Nesken futbolari behar duen garrantzia ematen al zaio?

Ez. Eta hori gainera arlo guztietan nabaritzen den gauza da. Komunikabideetan, esaterako, gizonen areto-futbolari eskaintzen zaion tartea eta guri eskaintzen zaiguna oso desberdina da. Babesleak bilatzeko orduan ere guri zailagoa egiten zaigu, dagoen diru urria gizonentzat doalako. Eta horrela gertatzen da arlo gehienetan.

I.A: Nik jokatzen dudana maila eta telebistan ematen dituzten areto-futboleko gizonen partiduak maila berekoak dira, eta begira bakoitzari ematen zaion tratamendua. Are gehiago, gu baino maila baxuagoko gizonen taldeei komunikabideetan estaldura handiagoa ematen zaie.

Diru laguntza aldetik, Tolosako Udalak eta Kirolgik aurrekontuaren zati bat ematen digu, baina gainontzekoa guk lortu behar dugu rifak e.a salduz. Gainera, kanpoan jokatzea tokatzen zaigunean (Melilla, Granada, Galizia...), bus-literan egiten dugu bidaia, hotela garestiagoa delako.

N.M: Nire ekipoan dirulaguntza aldetik ez dago arazo handirik, EHU-UPVk jartzen duelako, baina prentsan, guk edo mutilek dugun presentzia ez da berdina.

Ba al du etorkizunik emakumeen areto-futbolak?

I.A: Bai. Nahiz eta hemen neska gutxi egon kirol honetara dedikatzen direnak, Ikastola desberdinekin eta Unibertsitatearekin hitzarmena egina dago bertatik kantera sortzeko. Espainia mailako ligan gure ekipoa dago bakarrik, eta behintzat bertan mantentzeko jendea lortzen saiatu behar dugu.

N.M: Euskal Herri mailan ez da ohikoa dirua kobratzea, baina Espainian badaude talde batzuk zeinak soldata bat kobratzen duten. Gainera, batzuk fitxajeak ere egiten dituzte. Honelako mugimenduak dauden momentutik, jendea behintzat bada goen seinale.

Naiara zuk Psikologia ikasi duzu eta Itziar zuk Heziketa Fisiko Magisteritza. Nola bideratzen duzue etorkizuna?

I.A: Nire burua entrenatzaile modura ikusten dut, umeekin edo gazteekin.



N.M: Baita nik ere. Nire taldean noizean behin honelako lanak egiten ditut. Bestalde, Federazioan hitzaldiak eman izan ditut, kirolari buruzko psikologiaren inguruan.

Fisikoaz gain zein dohain behar ditu pertsona batek kirolari ona izateko?

I.A: Maila gorenak asko eskatzen du, borondate handia izan behar da. Gainera, guk zaletasun hutsaz egiten dugu.

Norberak bere lana du. Horretaz aparte, astean lautan entrenamendua izaten dugu, 15ero kanpoan jokatzen dugu... Azken finean, hainbeste denbora eskaintzen diozu kirolari zuretzako denborarik gabe geratzen zarela. Baina konpentsatzen du.

N.M: Gaitasun mental batzuk izan behar dituzu. Talde-lana da, nahiz eta helburuak, izaerak e.a indibidualak diren. Horregatik oso inportantea da taldean egoten jakitea. Norberaren helburuen gaitetik, helburu nagusia jokatuz dibertitzea dela eduki behar dugu buruan.

Urte guzti hauetako anekdotak?

Anekdotak konkretu bat baino gehiago, egin izan ditugun bihurrikieriez gogoratzen gara. Pentsa ezazu zer zen guretzat 13 urterekin hotel bateko logelarik bakarrik egotea. Denetik egin dugu.

I.A: Behin gogoratzen naiz logelako telefonotik, goizean, beste logeletarako kristoren gosariak enkargatzen egon ginela.

N.M: Nik Bartzelonan egin genuena dut gogoan. Sanpedrotarrarekin ginen bertan. Gu biak oso gazteak ginen gauean ateratzeko, orduan pijama jantzi eta ohean sartu ginen. Hala geundela, besteak gure bila etorri ziren eta lo egiteko arroparekin egon ginen Bartzelonatik gaez.

Superstiziorik?

I.A: Superstizioa baino gehiago ohitura dut beti partidua hasi aurretik ur trago bat edatearena.

N.M: Nik galtzerdiak igota jokatzen dut beti. Ah, eta "aurpegia" edo "gurutzea" eskatzerakoan beti "gurutzea" eskatzen dut.

Bidezko Merkataritza, ohiko merkatu-irizpideei alternatiba

TESTUA OLATZ MITXELENA

Pasaian badago bidezko merkataritzaren aldeko jarduerak aurrera ateratzen dituen talde bat. Taldeak iazko ekainean eman zion hasiera bere jarduerari, eta talde nahiko berria den arren, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian; besteak beste, gaiari buruzko hitzaldi bat antolatu dute eta baita bidezko merkataritzari buruzko denda zabalduta Gabonetan eta San Pedroko jaietan, gaiaren inguruko panel informatiboekin. Taldeko kideak sanpedrotarrak dira, eta taldearen jatorria San Pedroko parrokiako sendotza taldean kokatzen da. Hala ere, taldeko kideek argi utzi nahi izan dute parte-hartzea bidezko merkataritzarekin bat egiten duen edozein pertsonari irekia dagoela.

BAINA, ZER DA BIDEZKO MERKATARITZA?

Bidezko merkataritza ohiko merkataritzaren aurrean alternatiba bat da, irizpide ekonomiko soilen aurrean bestelako balore etikoak bultzatzen dituen, gizarte eta ingurugiro esparruak lotuz; eta, batez ere, Iparra eta Hegoaren arteko harreman bidegabekoak apurtzeko pausu gisa planteatzen den alternatiba bat da.

Jarduera honen bidez, lurralde behartsuetako nekazari eta ekoizle txiki beren lanekin duintasunez bizitzeko aukera eman nahi zaie, eta horretarako ekoizle eta kontsumitzaileen arteko ia zuzeneko harremanean oinarritzen da jarduna, bitartekariak gaituz eta salneurri egokiagoak ezarritik.

Bidezko merkataritza, 50. Hamarkada amaieran jaio zen Holandan, eta hastapenetatik xede eta erronka berdinak defenditu ditu.

BIDEZKO MERKATARITZAREN HELBURUAK

Arestian aipatu bezala, bidezko merkataritza ohiko merkataritzari planteatzen zaion alternatiba da, eta honek helburu oso argiak ditu:

-Hegoaldearen garapenari lagundu, garapen jasangarria eta inoren menpekora lortuz, berdintasunean oinarritutako merkatu-harremanak ezarritik eta mende-kotasunezko bideak hautsiz.

-Nazio industrializatuen protekzionismoa salatu, gure gizartean nazioarteko orden ekonomikoaren kontrako jarrera sozializatu, eta gaiaren inguruko sentsibilizazioa landu.

-Heziketaren bidez, kontsumo orekatua eta ardurazkoa bultzatu.



Xede hauek guztiak lortzeko bidean, bidezko merkataritza jarraitzen duten talde ekoizleek honako printzipio hauek bete behar dituzte:

- Langileen soldatak duintasunezkoak behar dute izan.
- Talde ekoizleek gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna ziurtatu eta sustatu behar du.
- Funtzionamendu demokratikoa izan behar dute oinarri.
- Produktzioak gizarteko eta izadiko ingurunea errespetatu behar du.
- Ekoizten diren produktuak kalitatezkoak izan behar dute.

Gaia interesekoa baduzu, eta zure laguntza eskaini nahi izanez gero, San Pedroko parrokiara jo eta hantxango duzu talde honekin harremanetan jartzeko aukera.

Zer iruditzen zaizu Pasaiako herriak Victor Hugo idazleari, honen jaiotzaren 2. mendurrena dela eta, eskaini dion omenaldia?



1 Fidel Otazo.
Administraria.

Oso ondo iruditzen zait.

2 Ana Luisa Cámara.
67 urte. Jubilatua.

Ondo San Juan eta bere kulturarentzat ona baldin bada.

3 Iñaki Ruiz.
21 urte. Langabetua.

Badakit Victor Hugo idazlea egun batzuek Pasaian egon zela eta liburu batean pasaitarrei eta euskaldunei buruz hitz egin zuela; eta horregatik herriak berari eskaini dion arreta azken aldi honetan egin diren erakuskete-kin, hitzaldiekin eta ondo iruditzen zait.

4 Ainhoa Otegi.
30 urte. Zerbitzaria.

Ondo iruditzen zait, ze horrelako gauzek herriari bizitasa ematen diote.

5 Aitor Zabala. 30 urte. Mekanikaria.

Ondo iruditzen zait. Bidaia honek Pasaia eta Euskadiri buruz egindako deskribapen historikoak oso onak izan dira.

6 Zigor Garcia.
28 urte. Artista.

Ez dakit norainoko zerikusia duen Pasaiarekin. Egundak batzuk hemen pasa eta gero, herriari buruz asko idatzi zuen, baina bizitza osoa hemen eman duen jende askok ere omenaldia beharko luke. Agian hobe izango litzateke "Bentaberi" eskaintzea omenaldia.

7 Candi Osa.
Artista.

Hain absurdua iruditzen zait. Eite pseudokulturaleko zerbait egiteko txorakeria bat iruditzen zait.


8 Joseba Antxustegietxarte.
33 urte. Irakaslea.

Ondo iruditzen zait. Baina agian aitzakia bat Pasaia promozionatzeko. Eta nire ustez Pasaia promozionatzeko onena herria ondo jartzen hastea da: paseoak egin eta konpontzea, etxebizitzak egitea e.a.

9 Jabi Vicente.
28 urte. Elektronikaria.

Oso ondo iruditzen zait, Victor Hugo horrek Pasaia mundu guztian ezagutzera eman zuelako bere obraren bidez.

Jaizkibel draga zaharberritzeko lehen pausuak eman dira



TESTUA OLATZ MITXELENA ARGAZKIAK UNTZI MUSEOA

Jaizkibel dragaren zati bat Aizkorreta Ontziolara eraman zutela jakin genuen orain dela gutxi, eta segituan pista horren peskisan jarri ginen; zergatik? noiz? nola?... Jakin-mina sortu zigun horrek, izan ere urteak dira Jaizkibel draga monumentu izendatu zutela eta bere berriztapen beharra aspaldiko kontua zen. Lehendabiziko telefono-deiak espero genuen erantzuna eman ziguten: azkenik, draga zaharberritzeko lehendabiziko urratsak eman dira.



Pasaitarrentzat ohikoa bihurtu da azken urteetan Jaizkibel dragaren irudi degradatua La Hererako parajeetan. Bada, azkenik, badirudi gure herriko portuan hain betebeharrak funtsezkoak izan zutenari behingoz zor ziztaion begirunea aitortu zaiola.

Jaizkibel draga 1932. urtean eraiki zen Bilboko Euskalduna Ontzioletan, Pasaia Portuko Lan Juntaren (Junta de obras del puerto de Pasajes) aginduz. Lau urte beranduago, Jaizkibel draga Pasaia ekarri

zuten eta orduz geroztik Pasaia portua txukun eta baldintza egokietan mantentzearen ardura berea izan zen.

Hori izan zen bere jarduna 1984. urtera arte. Mende erdian badiako area eta lokatzei aurre eginez ibili eta gero, azkenik, erretirorako ordua iritsi ziztaion dragari, baina aitzitik, honek ez du orain dela gutxira arte patxadan egoteko aukerarik izan.

1991. urtean, Ontzi Museoan, Jaizkibel dragaren



berehalako enkantearen berri izan zuten. Honen aurrean museoan lan egiten duten Soco Romanok eta Jose Maria Unsainek draga monumentu deklaratu izan zedin beharrezkoak ziren tramiteak bideratu zituzten. Azkenik, eta bereziki pertsona hauen ekinari esker, 1992. urtean, Jaizkibel draga monumentu izendatua izan zen. Azpimarratu behar da, halaber, izendatze hau ez dela nolana hiko, izan ere, Euskadin zein estatu espainiarrean ontzi bat monumentu deklaratu den lehendabiziko aldia izan da.

Jose Maria Unsainen hitzetan, Jaizkibel draga euskal itsas ondarearen funtsezko pieza bat da, hainbat arrazoiengatik:

Euskal Herrian gorde den ontzi zaharrenetakoa da Jaizkibel draga, eta horrez gain, Euskal Herrian sortu eta eraiki zuten. Bere erakuntzarako erabili zen sistemak ere balioa ematen dio, izan ere, soldadura aurreko errematxe sistemarekin eraiki zen. Eta azkenik, pasaitarrentzat bereziki garrantzitsua den arrazoia aipatzen du Unsainek:

"Jaizkibel dragak bere bizitza guztia Pasaian eman zuen, ahalik eta funtzionamenduz kanpo gelditu zen arte".

Unsain baikor ageri da draga berrizatzeko hartu diren neurriak direla eta. Dragaren etorkizunaz ere galdetu diogu eta zera esan digu: "Euskal Herriko Ontzi Museoa Pasaia eramateko plana dago, eta gure ustez dragaren berrizatzeko testuinguru horretan du zentzu handien. Etor-kizuneko museoan Jaizkibel draga pieza erakargarrietakoa izango litzateke".

Esan behar dugu, bestalde, erreportaje hau lantzeko orduan Foru Aldundiko Ondarearen Zerbitzuaren zuzendaria den Gabriela Vivesekin harremanetan jarri garela. Honek, dragaren zaharberritzeari ekin zaiola

baieztatu zigun, eta pozik eta baikor azaldu zen lanei hasiera eman zaielako. Aldizkaria ixteko momentuan, Foru Aldundiari luzatutako beste galdera batzuen erantzunaren zain gaude, eta Brankako hurrengo zenbakietan berrizatzeko-plana, epeak eta bestelako datuak jakinaraziko ditugu.



ERAKUSKETAK

>VICTOR HUGO JAIO ZENeko
BIGARREN MENDEURRENA>
DONIBANEN:
"ONTZI TRADIZIONALAK HIRUGARREN
MILURTEKORANTZ".
MAIATZAREN 24TIK EKAINAREN 23
ARTE, ONTZIOLAN.>>

JUAN CARLOS CARDESIN. ITSASOARI
BURUZKO AKUARELAK. MAIATZAREN
31TIK EKAINAREN 23 ARTE, VICTOR
HUGO ETXEAN.>>

ANTXON:
KEXALDI ELKARTEAK ANTOLATUTAKO
ARTISAU IKASTAROEN LANAK.
MAIATZAREN 28TIK 30 ARTE,
KULTUR ETXEAN.>>

TRINTXERPE:
C.A.S. AZKUENE ELKARTEKO EMAKUMEEK
ANTOLATUTAKO IKASTAROEN LANAK.
MAIATZAREN 24TIK 26 ARTE, KULTUR
ETXEAN.>>

ANTZERKIA
ANTXON:
KLOWN BELADA: OIHULARI KLOWN
TALDEAK "DE PROFESIÓN PRINCESA"
ANTZEZTUKO DU. MAIATZAREN 24AN
21:00ETAN, KULTUR ETXEAN.
INPROBISAZIOAK ERE EGONGO DIRA...>>

MUSIKA
DONIBANEN:
>XII. MUSIKA JARDUNALDIAK>
ITSAS MENDI MUSIKA TALDEAK
ANTOLATUTA.

GIPUZKOAKO ABESBATZEN ELKARTEKO
ABESBATZA. MAIATZAREN 18AN,
20:30TAN
BONANTZAKO ELIZAN.>>

PASAIA MUSIKA BANDA. MAIATZAREN
19AN, 13:00TAN HERRIKO PLAZAN.>>

SUSTRAIEN AHOTSA. MAIATZAREN 24AN,
20:30TAN BONANTZAKO ELIZAN.>>

ALAI ETA OROITH ABESBATZAK.
MAIATZAREN 25EAN, 13:00TAN
SAN JUAN BAUTISTAN.>>



pabela
zinekluba

Hilero bezala,
Pabela
Zineklubak
egitarau

zabala prestatu du maiatzerako. Gogoratu
emanaldiak igandero izango direla, **San
Pedroko Udal Aretoan, arratsaldeko
18:00etan.**

Maiatzaren 12an:

Filme laburra: 'La pescadilla que se
muerte la cola'.
Filme luzea: 'Broadway danny rose'.
Zuzendaria, Woody Allen. 1984 urtekoa.



Maiatzaren 19an:

Filme laburra: 'Torre'.
Filme luzea: 'Gattaca'. Zuzendaria, Andrew
Nicol. 1997 urtekoa.



Maiatzaren 26an:

Filme laburra: 'El cuerpo'.
Filme luzea: 'Y tu mamá también'.
Zuzendaria, Alfonso Cuarón. 2001 urtekoa.

ILLUNBE MUSIKA BANDA. MAIATZAREN 26AN,
13:00TAN
HERRIKO PLAZAN.>>

NÁYADE ABESBATZA. MAIATZAREN 31N,
20:30TAN BONANTZAKO ELIZAN.>>

EKAIAK 2. 13:00
"DADIERI OMENALDIA". ITSAS MENDI
TXISTU TALDEA ETA KONSTANTZIA
SANJUANDAR BANDA. EKAINAREN 2AN,
13:00TAN HERRIKO PLAZAN.>>

TRINTXERPEN:
13-23 . 19:00
PASAIA MUSIKALEKO IKASLEEN KONTZERTUAK.
MAIATZAREN 13TIK 23RA, 19:00TAN
ALKATEORDETZAN.>>

ZINEA
>VICTOR HUGO JAIO ZENeko
BIGARREN MENDEURRENA>
DONIBANEN:
VICTOR HUGORI BURUZKO DOKUMENTALAK.
MAIATZAREN 15EAN, 19:30TAN VICTOR
HUGO ETXEAN.>>

ANTXON:
'RIGOLETTO'. MAIATZAREN 22AN, 19:30TAN
KULTUR ETXEAN.>>

SAN PEDRON:
'ESMERALDA LA ZÍNGARA'. MAIATZAREN
29AN, 19:30TAN UDAL ARETOAN.>>

DANTZA
>HAMABOSTALDI KULTURALA>
ALKARTASUNA DANTZA TALDEAK ANTOLATUTA.
ANTXON:
ALKARTASUNAREN AURKEZPENA. MAIATZAREN
18AN, 22:00TAN FRONTOIAN.>>

ALKAR-TXIKI DANTZA TALDEAREN
AURKEZPENA. MAIATZAREN 19AN, 12:00TAN
FRONTOIAN.>>


III ERROMERI-AFARIA. MAIATZAREN 24AN,
22:00TAN GURE ZUMARDIAN.>>

XXII. EUSKADIKO GIPUZKOAR AURRESKU
TXAPELKETA. MAIATZAK 25 ETA 26
GURE ZUMARDIAN.>>

IX SAGARDO JAIA. EKAINAK 1, 17:00TATIK
AURRERA GURE ZUMARDIAN.>>

lehiaketa
irabazleak

Aurreko hilabeteko brankan egiten genizuen galderaren inguruan
asmatzaileen artean **Itziar García Martín** izeneko brankazaleak
eramango du saria. **Itziarrek** galdera honi erantzun zuzena eman
dio: Zenbat itsaslami edo sirena azaltzen dira Pasaiko armarran? Eta
erantzuna, noski, hauxe: bi itsaslami.
Beraz, zuretzat izango da ELKARLANEAN argitaletxeak eskaintzen
duen saria, oraingoan Fernando Morillo idazlearen 'Ortzadarra sutan'
elaberria izango delarik. Beraz, zorionak **Itziar** eta erne jarraian
datorren hilabete honetako galderari.



lehiaketa
galdera


Hilabete honetako galdera hauxe da:

**Victor Hugoren zein liburutan
azaltzen da Pasaia?**

Erantzunak horrela helarazi diezaizkigukezue:
e-postaz: branka@euskalnet.net
postaz: branka pasaiaiko herri aldizkaria, Eskalantegi 38 behea, 20110, Pasaia
telefonoz: 943 341 045ra deituaz

lehiaketa
saria

ARREBA
TXIKI BAT
DUT



**Honatx hilabete honetako
erantzun irabazleak
eramango duen liburuaren
erreseina:**

Izenburua: Arreba txiki bat dut, eta zer?
Egileak: J.M. Olaizola "Txiliku", Jokin
Mitxelena. Orriak: 30. Saila: Eta zer?
saila 9. Argitaletxea: ELKARLANEAN. 8
URTETIK GORAKO HAURRENTZAT.

Iñakik arreba txiki bat edukiko du laster.
Alde batetik, oso pozik dago, baina,
bestetik, baditu bere kezka ere, bere lagun
Manueltxok berotu baitio burua arreba
txikiei buruz gaizki hitz eginez.

zuk zeuk!

LIBURUA
'GASTIBELTZAREN KARABINAK'
Marc Légasse



"Mundua ikusita begirada batez, hasi gintezke denok batera negarez" dio abesti batek. Eta egia da askotan amesteko gogoak ere kentzen dituztela gure inguruan gertatzen diren gauza askok.

Liburu honek amesten laguntzen du. Amets hauengatik borrokatzea zein garrantzitsua den erakusten digu, eta gainera, hobe den zerbait lortzeko modu bakarra dela. Batzuetan ezinezkoak irudituko zaizkigu, baina amesteari uzten diogunean bihurtzen dira ezinezkoak.


Aurkakoa sinisterra bultzatzen gaituen kakaz inguratutako bizi gara, guk hori sinistea beharrezkoa delako gauzek berdin jarrai dezaten.

Liburu polita da eta badu magikoa den zerbait. Nik oso ondo pasatu nuen irakurtzen egon nintzen bitartean, eta bukatu nuenean, irakurtzean nire buruari oparitxo bat egin niola iruditu zitzaidan, eskertzekoa delako halako gauzak irakurtzea.■



ENARA MATEO

MUSIKA
CREED
'Weathered'




Orokorrean, Estatu Batuen eragina musika munduan argia da; han arrakasta lortu ondoren, musika taldeek beraien oihartzuna munduan zehar zabaltzen dute, jatorrizko merkatuan lorturiko salmentak berretsiz beste lurraldeetan ere. Hala ere, kasu berezietan, Ipar Amerikan milioika ale saldu dituzten taldeek ez dute Europako musika-merkatuan zorte berdina izaten. Honen adibide argia dugu Creed rock taldea; nahiz eta beraien lanen salmentak milioika zenbatu behar izan, Europan ez dute halako arrakastarik izan. Gaur egun arraroa iruditu arren, talde honek ez du ez Rap-Metal, Nu-metal edo halako musikarik jorratzen; beraien doinuaren iturria 90. hamarkadaren hasieran Seattlen jorratutako musika da, Alice In Chains edo Soundgarden taldeena batez ere. Jarrera aldetik, aldiz, gauzak beste modu batekoak dira; halako mistizismo kristaua agertzen da beraien abestietan, eta partaideen tximak eta tatuaiak gorabehera, oso mutiko txintxoak dirudite. Dena den, beraien musika zeharo entzungarria da.■



IGOR MINTEGIA

MUSIKA
RUPER ORDORIKA
Kontzertua



EHUK Ibaetan antolatzen dituen ihardunaldien horietako bat egunkarian irakurri eta bertaratu ginen.

Halako goiz baten Ruper Ordorika ikusteko aukera suertatu eta hantxen. Ikastegiko auditorioa ondo hornituriko aretoa da eta musika ekipoa gure belarrientzako aproposena, konpainia ona; lagunak behar ditu gizakiak; zer gehio behar da ba!


Aspaldi fakultatetik pasa gabe ginen eta ikaslez josiriko gelara sartu bezain pronto berotasuna sentitu nuen, baita urduritasun punttu bat ere; agian lekuz kanpo geundelako?; ez, orain urte gutxi Ruperren musika deskubritu eta barruraino sartu izan arren zuzenean ikusi ez duenaren ikusmina.

Musika folk-popa dela, rock-folka dela, ze axola dio horrek, ezta? berak rocka doinu bat baino jarrera bat dela dio. Hitzak, askotan puntu autobiografikoa izaten dute eta horrek erreflexio zintzoak izanik, barneraino sartzen dira. Sormenari ateak itxi gabe lan egiten omen du; askotan B. Atxaga zein J.Sarrionaindiaren hitzak doinuz janztera ausartu da ere.

Bere azken lana 'Bihotz begiekin' izan da, baina gehiegi entzun ez baduzue Bilboko Kafe Antzokian grabaturiko 'Gaur' diskak engantxatuko zaituzte. Hemendik entzuteko gonbitea.■



BIRJINIA ORTEGA



Argazki honetan herriko taldeen arteko sokatira-txapelketa bat ikus dezakegu. 70-75 urte inguruko Santiago jaietan egindakoa da, eta esan digutenez, argazkian agertzen direnak irabazi omen zuten txapelketa.

Ezkerretik eskuinera honako sanjuandarrak agertzen dira: Iñaki Lopetegi, Ramón Vicente, (ezezaguna), Aquilino Etxarri, Joxe Salaberria, Esteban Sagarzazu eta Leoncio Etxarri.

Iraganari begirada

SAGARRAK ETA GATZA

Lehen eta oraingo haurren artean beti izan da baserriarren frutondoetatik lapurtzeko ohitura. Agian, lehen orain baino gehiago. Batez ere sagarrak lapurtzen zituzten, gure artean sagar ugari egon delako beti. Aldiz, melokotoi, muxika, piku, udare eta beste fruituen sa-soia iristean, zuhaitz ondoetan ibiltzen ziren haur guztiak ondutako fruituak hartzeko prest. Ostutakoa jaten zuten eta soberan zegoena, berriz, bota. Normalean, ez zituzten lapurtutako frutak etxera eramaten.

Haurrek lasterka ihes egitearen arriskua atsegin zuten. Egoera hartan sortzen ziren emozioak zirrara pizten zuten haurrengan. Hartaz, lapurtzea bera baino, honen inguruan sortzen zen giroa maite zuten. Baserriarra haserre atzetik ibiltzea edo belarrondoko bat jasotzeko arriskuak, lapurtutako sagarraren zaporea hobetzen zuen.

Bazen baina, belarrondokoa baino kastigu mingarriagorik, gatza alegia. Ba omen zeuden eskopeta hartu eta gatzaz beteriko kartutxoekin zuhaitzak hustu nahian ibiltzen ziren haurrak tirokatzen zituzten baserriarrak. Eta baita ipurdia bero-bero etxera joandako lapur txikiak.**BORDAUNDI**

br-26
26

KRITIKAK

br-26
27